

1. **Foruaren Hobekuntzak (Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoak) hau dio:**
 - a) Nafarroa, euskarari dagokionez, hiru hizkuntza eremutan banatuko da.
 - b) Euskara, gaztelaniarekin batera, ofiziala izanen da Nafarroako eremu euskaldunetan.
 - c) Euskarazko irakaskuntza hautazkoa izanen da betiere.
 - d) Gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira.

2. **Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean, zer EZ da esaten?**
 - a) Hizkuntza dela-eta herritarrak diskriminatuak izan ez daitezen, botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte.
 - b) Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia izanen dute.
 - c) Hizkuntza arauak ezartzeko, Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku-emaile ofiziala.
 - d) Gaztelania du Nafarroak berezko hizkuntza, baina, hala ere, herritar guztiak dute euskara jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

3. **“Herritar guztiak, administrazio publikoekiko harremanetan, eskubidea dute euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eta berek hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko”. Euskarari buruzko Foru Legean, xedapen hori ezartzen da...**
 - a) eremu euskaldunerako eta mistorako.
 - b) eremu euskaldunerako bakarrik.
 - c) eremu euskaldunerako eta Administrazioaren zerbitzu zentraletarako.
 - d) zerbitzu zentraletarako bakarrik.

4. **Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean, komunikabideei buruz, zer EZ da esaten?**
 - a) Nafarroako Gobernuak planak eginen ditu, komunikabideek euskara erabiltzea helburu.
 - b) Euskararen gutxieneko presentzia bermatuko du Nafarroako Gobernuak komunikabide publiko zein pribatuetan.
 - c) Euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan sustatuko dute administrazio publikoek.
 - d) Komunikabideak funtsezkoak dira euskararen ezagutzarako.

5. **103/2017 Foru Dekretuaren arabera, eremu euskaldunean, toki entitateen webguneetako informazioa eta webgune horien bidez egin daitezkeen tramite administratiboak era honetan izanen dira eskuragarri:**
- a) Bi hizkuntza ofizialetan.
 - b) Gaztelania hutsean, hala nahi izanez gero.
 - c) Euskara hutsean, hala nahi izanez gero.
 - d) Webguneetako informazioa euskara hutsean, hala nahi izanez gero, baina tramite administratiboak bi hizkuntza ofizialetan.
6. **103/2017 Foru Dekretuaren arabera, eremu mistoan, zerbitzu zentralizat hartzen EZ diren administrazio publikoen kasuan, norbaitek euskaraz hasitako espedientetik eratorritako jakinarazpenak eta komunikazioak honela bidaliko zaizkie interesdunei:**
- a) Euskaraz.
 - b) Ele biz nahitaez.
 - c) Ele biz igortzen ahal zaizkie, baina ez da derrigorrezkoa.
 - d) Ele biz, baina pertsona fisikoak badira bakarrik.
7. **Zein da legealdi honetako departamentuetako hizkuntza planen indarraia?**
- a) 2019-2023
 - b) 2020-2022
 - c) 2019-2022
 - d) 2020-2023
8. **Legealdi honetako departamentuetako hizkuntza planen egitura dela-eta, zein da erantzun zuzena?**
- a) Hizkuntza plan bakarra dago departamentu guztientzat.
 - b) Departamentu bakoitzak bere hizkuntza plana du, berariazko atalekin.
 - c) Departamentuetako hizkuntza plan guztiek egitura bera dute, helburuen edukiak izan ezik.
 - d) Departamentuetako hizkuntza plan guztiek egitura bera dute, diagnostikoaren edukia izan ezik.
9. **Zein dira legealdi honetako departamentuetako hizkuntza planen lau atal nagusiak?**
- a) Sarrera; diagnostikoa; misioa eta helburuak; antolamendua eta jarraipena.
 - b) Lege esparrua, diagnostikoa, helburuak, jarraipena.
 - c) Datu demografiko eta soziolinguistikoak, lehentasunezko unitateen diagnostikoa, misioa, antolamendua.
 - d) Sarrera; langileen euskara ezagutza; misioa; antolamendua eta jarraipena.

10. Zer hartu da kontuan lehentasunezko unitateak zehazteko?

- a) Unitate horietako langileen ezagutza datuak.
- b) Unitate horien zerbitzuaren eta komunikazioen izaera.
- c) Unitate horiek bulego edo atalak izatea.
- d) Unitate horietan ele biko plazarik ez izatea.

11. Departamentuetako hizkuntza planen 2. helburuaren arabera, nori eskainiko zaio euskarazko prestakuntza?

- a) Lehentasunezko unitate organikoetako esleituriko departamentuko langileei.
- b) Nafarroako Foru Administrazioetako langileei.
- c) Nafarroako administrazio publikoetako langileei.
- d) Nafarroako administrazio publikoetako nahiz sozietate publikoetako langileei.

12. Departamentuetako hizkuntza planen arabera, Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuko teknikariek, besteak beste, ondoko eginkizuna dute:

- a) Departamentuetako hizkuntza planetan bildutako ekintzak departamentuetan ezartzen laguntzea.
- b) Departamentuetako hizkuntza planetan bildutako ekintzak departamentuetan ezartzea.
- c) Departamentuetako hizkuntza planetan ekintzak ezartzea.
- d) Departamentuetako hizkuntza planetan ekintzak ezartzen laguntzea.

13. Zein da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren izaera?

- a) Ikastetxe izaera du.
- b) Erakunde autonomo bat da, Nafarroako Gobernu departamentu bati atxikia.
- c) Nafarroako Gobernu zuzendaritza nagusi bat da.
- d) Sozietate publiko bat da.

14. Euskarabideak, bere estatutuen arabera, noren plangintza eta politika orokorrari jarraitu beharko die?

- a) Nafarroako Parlamentuak ezarritakoei.
- b) Euskararen Nafar Kontseiluak onetsitakoei.
- c) Hizkuntza politikaren arloan ardura duen departamentuak xedatutakoei.
- d) Kulturaren arloan ardura duen departamentuak xedatutakoei.

15. Zein da edo dira Euskarabidearen zuzendaritza organoa edo organoak, bere estatutuen arabera?

- a) Gobernu Kontseilua eta zuzendari kudeatzailea.
- b) Zuzendari kudeatzailea eta kasuan kasuko departamentuko kontseilaria.
- c) Gobernu Kontseilua eta kasuan kasuko departamentuko kontseilaria.
- d) Gobernu Kontseilua da organo bakarra.

16. Euskararen Nafar Kontseiluari buruzko baieztapen hauetatik, zein da OKERRA?

- a) Hizkuntza politikaren arloan eskumena duen departamentuko titularra izanen du buru.
- b) Euskarari buruzko Foru Legean jaso dago kontseilu horren sorrera.
- c) Euskarabidearen Estatutuetan dago arautua kontseilu hori.
- d) Sei hilean behin egingen du osoko bilkura arrunta.

17. Aholkularitza Atala, organikoki, non dago kokatua?

- a) Hizkuntza Baliabideen Zerbitzuan.
- b) Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuan.
- c) Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuan.
- d) Ez dago halako izena duen atalik Euskarabidean.

18. “Administrazio publikoei aholkua ematea euskara-gaztelania zein gaztelania-euskara itzulpen ofizialen arloan”. Eginkizun hori, Euskarabidearen Estatutuen arabera, nori dagokio berariaz?

- a) Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuari.
- b) Hizkuntza Baliabideen Zerbitzuari.
- c) Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuari.
- d) Aholkularitza Atalari.

19. Zein izan zen Euskararen I. Plan Estrategikoa diseinatzeko prozesua?

- a) Diagnostika, mahai teknikoak, partaidetza, ekarpenak aztertu, Gobernuak onartu.
- b) Mahai teknikoak, diagnostika, ekarpenak aztertu, partaidetza, Gobernuak onartu.
- c) Diagnostika, ekarpenak aztertu, partaidetza, mahai teknikoak, Gobernuak onartu.
- d) Diagnostika, mahai teknikoak, ekarpenak aztertu, partaidetza, Gobernuak onartu.

20. Zenbat ardatz estrategiko ditu Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoak?

- a) 5 ardatz.
- b) 6 ardatz.
- c) 7 ardatz.
- d) 8 ardatz.

21. Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoaren arabera, zein bloketan dago “Hiztun berriak” izeneko ardatz estrategikoa?

- a) “Ikuskera berria” izeneko blokean.
- b) “Gizarteari zerbitzuak ematea” izeneko blokean.
- c) “Hizkuntza esparrua” izeneko blokean.
- d) “Gizarte erabilera” izeneko blokean.

22. Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoaren arabera, zein ardatz estrategikotan dago “Nafarroako euskalkiak eta euskararen aldaerak zaintzea, garatzea eta hedatzea, herritarrek ezagutu, balioetsi eta erabil ditzaten”?
- a) “Hizkuntza esparrua” izeneko ardatz estrategikoan.
 - b) “Hiztun berrien trebatzea” izeneko ardatz estrategikoan.
 - c) “Gizarte erabilera” izeneko ardatz estrategikoan.
 - d) “Prestigioa eta erakargarritasuna” izeneko ardatz estrategikoan.
23. Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoaren arabera, zein ardatz estrategikotan dago “Euskara hurbiltzea beren errealitatetik urrun sentitzen duten herritar nafarrei”?
- a) “Hizkuntza esparrua” izeneko ardatz estrategikoan.
 - b) “Hiztun berrien trebatzea” izeneko ardatz estrategikoan.
 - c) “Gizarte erabilera” izeneko ardatz estrategikoan.
 - d) “Prestigioa eta erakargarritasuna” izeneko ardatz estrategikoan.
24. Euskararen I. Plan Estrategikoaren ebaluazio txostenak honako hau proposatzen du II. Plan Estrategikoaren oinarrietarako:
- a) Planaren indarraldia luzatzea, 2020-2027 aldia kontuan hartuta, plangintza eta ebaluazio tresnak errazte aldera.
 - b) Planaren zirriborroa Euskararen Nafarroako Kontseiluak sortzea, euskalgintzako eragileen parte-hartzea ziurtatu dadin.
 - c) Lehenbizi plana alderdi politikoekin adostea, euskara konfrontaziotik urrunduko duen akordio baten bila.
 - d) Planean lehentasuna ematea gazteriarri eta euskara teknologia berrietan garatzeari, horretarako ekintza espezifikoak txertatuz.
25. Zein adin tartetako biztanleak hartzen ditu Euskararen Inkesta Soziolinguistikoak?
- a) Adin tarte guztietakoak.
 - b) 16 urteko eta gehiagoko biztanleak.
 - c) 7 urteko eta gehiagoko biztanleak.
 - d) 3 urteko eta gehiagoko biztanleak.
26. 2016ko Seigarren Euskararen Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, inkesta egindakoen artean, euskaldunen eta euskaldun hartzailen ehunekoa hau da Nafarroan:
- a) % 20 baino gutxiagokoa.
 - b) % 20 eta % 25 artekoa.
 - c) % 25 eta % 30 artekoa.
 - d) % 30 baino gehiagokoa.

27. 2016ko Seigarren Euskararen Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Nafarroako 16 eta 24 urte tarteko gazteen artean, euskaldunen eta euskaldun hartzaileen ehunekoa hau da:

- a) % 20 baino gutxiagokoa.
- b) % 20 eta % 30 artekoa.
- c) % 30 eta % 40 artekoa.
- d) % 40 baino gehiagokoa.

28. 2016ko Seigarren Euskararen Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, euskara eta erdara erabiltzeko erraztasunaz galdetuta, Nafarroako eremu euskalduneko euskaldunen kasuan:

- a) Gehienak euskara erdara baino errazago erabiltzen dutenen multzoan daude.
- b) Gehienak elebidun orekatuen multzoan daude, biak ongi dakizkitelako.
- c) Gehienak erdal elebidunen multzoan daude, nagusiki erdaraz ikasi zutelako.
- d) Gehienak euskaldun alfabetatuak dira, eskolan euskara ala euskaraz ikasi zutelako.

29. 2016ko Seigarren Euskararen Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Nafarroan euskararen erabilera sustatzearen aurkako jarrera dutenen ehunekoa hau da:

- a) % 20 baino gutxiagokoa.
- b) % 20 eta % 30 artekoa.
- c) % 30 eta % 40 artekoa.
- d) % 40 baino gehiagokoa.

30. Zein tresnak biltzen ditu sistematikoki euskararen erabileraren inguruko datuak?

- a) Erabileraren Mapa Soziolinguistikoak.
- b) Euskararen Kale Erabileraren Neurketak.
- c) Inkesta Soziolinguistikoak.
- d) Erabileraren Azterketa Soziolinguistikoak.

31. Trena galdu dugu, geltokira berandu iritsi...

- a) bait gara [bereizita].
- b) bait-gara [marratxoarekin].
- c) bai gara [bereizita].
- d) Baikara [batera].

32. Euskaltzaindiaren arauen arabera, zein dago GAIZKI?

- a) Ortografi arauak.
- b) Hezkuntz baliabideak.
- c) Kultur etxea.
- d) Farmazi enpresa.

33. Euskaltzaindiaren arauen arabera, zein dago GAIZKI?

- a) Merezi ote du horrela bizitzeak?
- b) Ez du gutxiagorik merezi.
- c) Mirenek ongi merezia du saria.
- d) Adiskideek antolatutako festa baino zerbait hobea merezi zuen.

34. Adiskide maiteak!...

- a) Ongi etorria!
- b) Ongi etorriak!
- c) Ongi etorri!
- d) Ongietorri!

35. Diotenez, ura bihurtu zuen.

- a) ardo
- b) ardoa
- c) ardoan
- d) ardotan

36. Euskaltzaindiaren arauen arabera, zein dago ONGI?

- a) 14:30etan bazkalduko dugu.
- b) 14:30an bazkalduko dugu.
- c) 14:30ean bazkalduko dugu.
- d) 14:30n bazkalduko dugu.

37. Beheko hitzetatik zein da *jori* hitzaren sinonimoa?

- a) Saldo.
- b) Talde.
- c) Ugari.
- d) Opari.

38. *Endekatu*: zein du sinonimo?

- a) Degeneratu.
- b) Estekatu.
- c) Amaitu.
- d) Lerratu.

39. Ondoko hitz pareetan, zein EZ dira sinonimo?

- a) izara maindire
- b) oparo zeharo
- c) erabat arras
- d) trumoi ostots

40. Ondoko hitz pareetan, zein EZ dira sinonimo?

- a) helegite errekurtsio
- b) ilupa kanoa
- c) izotz horma
- d) asaldatu aztoratu

41. Euskaltzaindiaren Hiztegiko gomendioak kontuan hartuz, zein EZ zenuke erabiliko?

- a) Bizikleta.
- b) Film.
- c) Bertze.
- d) Magisteritza.

42. Euskaltzaindiaren Hiztegiko gomendioak kontuan hartuz, zein EZ zenuke erabiliko?

- a) Proba.
- b) Froga.
- c) Landetxe.
- d) Monastegi.

43. Euskara Batuaren Eskuliburuaren (EBEren) arabera, zein dago GAIZKI?

- a) Maiatzaren 25ean, ostirala, bilduko da epaimahaia.
- b) Maiatzaren 25ean, ostiralean, bilduko da epaimahaia.
- c) Maiatzaren 25ean, ostiralez, bilduko da epaimahaia.
- d) Maiatzaren 25ean, ostiralarekin, bilduko da epaimahaia.

44. EBEren arabera, zein dago GAIZKI?

- a) Bi urte eman zituen oposizioak prestatzen.
- b) Istilu ugari eman dira asteburu honetan Iruñeko kaleetan.
- c) Literaturari emana bizi da.
- d) Soineko horrek oso gaizki ematen dio.

45. Zertaz ari dira bi horiek?

- a) Dauzkaten arazoetaz.
- b) Hainbat gauzataz.
- c) Gutaz.
- d) Ainarataz.

46. EBEn arabera, zein dago ONGI?

- a) Zuzendaritza utzi zuen, horrela lasaiago biziko zeneko ustean.
- b) Egia azaleratuko delako itxaropena du.
- c) Langabezian geratuko direnaren beldur dira.
- d) Birusaren aurkako txertaketa-kanpaina mantso doalaren berriak ez gintuzke zapuztu behar.

47. EBEn arabera, zein dago ONGI?

- a) Zerbait falta zela ohartu ginen.
- b) Hanka sartu genuelaz ohartu ginen.
- c) Konturatu behar zenuke galtzen ari zarenaz.
- d) Gero etorriko denik ez diezazuket esan.

48. EBEn arabera, zein dago GAIZKI?

- a) Hurrek mantak jarri zituzten, hotzagatik bainoago beldurragatik.
- b) Irabaztea baino gehiago aritzea da helburua.
- c) Lagundu baino, enbarazu egiten du.
- d) Negua gehiago gustatzen zait uda baino.

49. 42/2011 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitatean helduei euskara irakasteko curriculuma ezartzen du, HENAC izeneko. Eranskineko sarreran dioenaren arabera, zenbatgarren zehaztapen-mailakoa da?

- a) 1. zehaztapen-mailakoa.
- b) 2. zehaztapen-mailakoa.
- c) 3. zehaztapen-mailakoa.
- d) 4. zehaztapen-mailakoa.

50. Sarreran adierazten denez, zertarako ezarri zen HENAC?

- a) Agiriak baliokidetzeko, azterketak diseinatzen laguntzeko eta ebaluazio tresnak eskaintzeko.
- b) Euskara ikaslearen programazioa diseinatzeko eta proposamenak egiteko.
- c) Euskara komunikazio-tresna izan dadin, gaitasun linguistikoak xehe ezartzeko.
- d) Ikasleen, irakasleen, azterketarien, aztertzaileen eta Administrazioaren lana eta lankidetzak hobetzeko.

51. Sarreran adierazten denez, nolakoa da HENACen helburua?

- a) Integratzailea, zehatza eta itxia.
- b) Malgua, zehatza eta zeharkakoa.
- c) Irekia, malgua eta integratzailea.
- d) Integratzailea, itxia eta zeharkakoa.

52. Sarreran adierazten denez, zein dira HENACen printzipio metodologikoak?

- a) Konstruktibismoan oinarritutako irakaskuntza eta ebaluazioa.
- b) Gaitasunetan oinarritutako irakaskuntza eta ebaluazioa.
- c) Atzetan oinarritutako irakaskuntza eta ebaluazioa.
- d) Praktikan oinarritutako irakaskuntza eta ebaluazioa.

53. HENACek "Mailen definizioak" atalean dioenaren arabera, zein mailari dagokio hurrengo definizioa?:

"Azaleko harremanak izan ditzake, batez ere galde-erantzunen egituran, baldin eta solaskideak mantso eta argi hitz egiten badio, eta laguntzeko prest badago".

- a) A1
- b) A2
- c) B1
- d) B2

54. HENACek "Hizkuntza-jarduerak eta estrategiak" atalean dioenaren arabera, idatzizko adierazpenean, zein mailari dagokio hurrengo definizioa?:

"Gai da bere iritzia emateko, alde edo kontra eginez, zenbait aukeraren alde onak eta txarrak nabarmenduz eta argudioak arrazoituz, foroetan edo blogetan".

- a) A2
- b) B1
- c) B2
- d) C1

55. HENACek "Hizkuntza-jarduerak eta estrategiak" atalean dioenaren arabera, ahozko ulermenean, zein mailari dagokio hurrengo definizioa?:

"Esamolde idiomatiko asko ezagutzen ditu, erregistro formaletan eta lagunartekoan, eta gai da erregistro aldaketaz ohartzeko".

- a) A2
- b) B1
- c) B2
- d) C1

56. HENACek "Hizkuntza-jarduerak eta estrategiak" atalean dioenaren arabera, idatzizko ulermenean, zein mailari dagokio hurrengo definizioa?:

"Gai da ideia nagusien, bigarren mailako eta xehetasunen arteko harremanak bereizteko, eta testuak interpretatzeko; jarrera kritikoa hartzen du, bere ezagutza erreferentziala erabiliz".

- a) B1
- b) B2
- c) C1
- d) C2

57. HENACek "Komunikazio-gaitasunak" atalean dioenaren arabera, zein gaitasuni dagokio "Erljio-ospakizunak eta jarduerak"?

- a) Gaitasun sozio-kulturalari.
- b) Gaitasun estrategikoari.
- c) Gaitasun testualari.
- d) Gaitasun linguistikoari.

58. HENACek zein ebaluazio mota proposatzen du "Ebaluazioa" atalean?

- a) Eredu analitikoa.
- b) Eredu komunikatiboa.
- c) Eredu konstruktibista.
- d) Eredu testuala.

59. HENACek "Ebaluazioa" atalean dioenaren arabera, zein helburu du edo ditu Portfolio Europarrak?

- a) Helburu akreditatzailea.
- b) Hiztunaren esperientzia kulturalak adieraztea.
- c) Helburu pedagogikoa eta informatiboa.
- d) Hizkuntzen mapa erregistratzea eta autoebaluazioa bultzatzea.

60. HENACek "Ebaluazioa" atalean kategoriatzuk proposatzen ditu. Ondoko kategoriatzuk hauetatik, zein dago KANPO?

- a) Baliabide sintaktikoak.
- b) Koherentzia.
- c) Diskurtsoaren antolaketa.
- d) Jaritasuna.

Erdi mailako euskara teknikari lanpostuak betetzeko izangaien bi zerrenda hautaprobeen bidez osatzeko deialdiak; zerrenda bat izanen da prestakuntzarako zerbitzu berezietan aritzeko, eta bestea, aldi baterako kontratazioak egiteko.

(2492/2020 EBAZPENA, urriaren 26koa, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak urriaren 26an emaniko 2492/2020 EBAZPENAREN bidez onetsitako deialdiak, eta 2020ko azaroaren 23ko 273. NAO n argitaratuak)

2021eko apirilaren 17an eginiko azterketaren ERANTZUNAK:

Galdera	Erantzuna	Galdera	Erantzuna	Galdera	Erantzuna
1	B	21	B	41	D
2	D	22	C	42	D
3	B	23	D	43	C
4	D	24	A	44	B
5	A	25	B	45	C
6	B	26	B	46	B
7	B	27	C	47	A
8	D	28	A	48	C
9	A	29	C	49	A
10	B	30	B	50	D
11	A	31	D	51	C
12	A	32	B	52	B
13	B	33	A	53	A
14	C	34	C	54	C
15	A	35	A	55	D
16	B	36	C	56	C
17	B	37	C	57	A
18	B	38	A	58	B
19	A	39	B	59	C
20	C	40	B	60	A

